



HERRIAREN DEFENDATZAILEEN XXV. KOORDINAZIO JARDUNALDIEN AZKEN ONDORIOAK “Krisi ekonomikoak pertsonen eskubideetan izan duen eragina”

Gaur egungo krisi ekonomikoak eragina izan du herriaren defendatzaileen jardunean. Hain zuzen ere, kontsultetan, kexetan eta ofiziozko jardunetan sumatu dira pertsonen konstituzio eskubideak eta askatasunak baliatzeari dagokionez krisiak ekarri dituen ondorioak.

Hori horrela, XXV. Koordinazio Jardunaldi hauetan, herriaren defendatzaileok gogoeta egin dugu krisi ekonomikoak pertsonen eskubideetan izan duen eraginaren inguruan, eta ondorio batzuk atera ditugu, oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak babestearen eta aldeztearen inguruko gure esperientzia eta eguneroko lana kontuan hartuta.

Agiri honek hiru zati ditu:

- I. Sintomak; atal honetan, guregana jotzen duten pertsonen profila aztertu dugu defentsa erakundeok, bai eta kontsultatutako gaiak eta kexen zergatia ere.
- II. Egoeraren diagnostikoa; abagune ekonomiko honetan agertzen diren arazo nagusien sustraira jotzeko saioa da.
- III. Ondorioak; gaur egungo egoera kontuan hartuta defentsa erakundeek, pertsonen oinarrizko eskubideak eta askatasunak bermatzeko, botere publikoei egindako proposamenak biltzen dira.

I. SINTOMAK

Atal hau azpiatal hauetan banatu da:

- Defentsa erakundeetara jotzen duten pertsonen profila.
- Krisia, kontsultatutako gaien edo kexen zergatiaren arabera.

A) Defentsa erakundeetara jotzen duten pertsonen profilari buruz

Oro har, defentsa erakundeak bat gatoz ez dagoela krisiak bereziki erasandakoaren profil zehatz bat; izan ere, oraingo krisi ekonomikoaren ondorioak hain dira ugariak, non askotariko taldeei erasan baitie, hein handiagoan zein txikiagoan. *Narriadura psikologikoa* litzateke denon izendatzailea.

Dena dela, sistematikoki, ondoko profil hauetan bil ditzakegu gure erakundeetara jo duten krisiak erasandako pertsonak: langabeak, langile autonomoak eta enpresa





txikien titularrak, lanik gabe dauden eta prestakuntzarik ez duten adin ertaineko emakumeak, gizarte zerbitzuen erabiltzaileak, premia larriak dituzten pertsonak eta taldeak, etorkinak, adinekoak eta pentsiodunak, eta, berriki, sektore publikoan enplegatutako pertsonak, 8/2010 Errege Lege Dekretua aplikatzearen ondorioz.

B) Krisia, kontsultatutako gaien edo kexen zergatiaren arabera

Krisi ekonomikoa nabaritu da defentsa erakundeetan jorratu ditugun gaietan ere. Gaika, modu honetara zerrenda ditzakegu, horietako bakoitzeko esanguratsuenak aipatuta:

- **Gizarte ongizatea:** laguntza ekonomikoak eta asistentzialak jasotzeko eskaerak ukatzea edo berandu ematea; behar besteko aurrekonturik ez izatea eskari gehikuntzari erantzuteko; eta finantzaketa publikoa murriztea gizarte eta laguntza erakunde pribatuetarako, txertaketako errenta minimoaren prestazioetarako eta gizarte larrialdietako prestazio ekonomikoetarako, besteak beste.
- **Etxebizitza:** alokairua ordaintzeko laguntzen beharra; alokairu araubideko babes ofizialeko behar beste etxebizitza ez izatea; babes ofizialeko etxebizitzaren esleipendunei azkenean mailegurik ez ematea eta etxebizitzari uko egin behar izatea, horrek berekin dakarren penalizazioarekin; emantzipatzeko oinarritzko errenta berandu kobratzea; muturreko eta etsipenezko egoerak gertatzea, utzarazpenen eta enbargoen ondorioz; gatazkak bankuekin eta kutxekin, eta abar.
- **Lana:** enpresen porrota, batez ere zuzenean edo zeharka eraikuntzaren sektorearekin loturik dauden enpresena (lansariak eta aparteko orduak ez ordaintzea, eta lanetik kaleratu izanarekin ados ez egotea); enplegua erregulatzeko espedienteak onesteko prozedura; laguntza publikorik eza "langabezia" dauden langile autonomoentzat eta bereziki egoera txarrean dauden taldeetako pertsona langabeentzat (adinarengatik, prestakuntzarengatik eta abarrengatik), enpresa txikien eta langile autonomoen zailtasun ekonomikoak (Gizarte Segurantzari eta Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari ez ordaintzea); itxarote ilarak enplegu zerbitzu publikoetan; koordinaziorik eza Estatuko eta erkidegoetako enplegu zerbitzu publikoen artean; hutsuneak prestazioen, prestakuntza ikastaroen, autoenplegurako laguntzen eta abarren inguruan emandako informazioan.
- **Gizarte Segurantza:** desadostasuna onartutako pentsioaren igoera eskasarekin; desadostasuna langabeziako sorospena ukatu izanarekin eta kotizazio aldien zenbaketa; atzerapenak oker egindako diru-sarrerak itzultzeko; eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak oker emandako prestazioen erreklamazioa, besteak beste.





- **Administrazio publikoak:** lan eskaintza publikoa gelditzea edo gutxitzea eta oposiziogile kopurua handitzea; aurrekontuak murriztea eta prestakuntza eta enplegu planak kaskarki kudeatzea; administrazio publikoek berandu ordaintzea kontratatutako enpresei, eta, horren ondorioz, profesional askoren biziraupena zailtzea, autonomoena eta enpresa txikiena (besteak beste).
- **Justizia:** atzerapenak zuzenean edo zeharka krisiarekin loturiko prozesu judizialen izapideetan (kantitate handiko erreklamazioak, utzarapenak, konkurtso epaketak eta abar).

II. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Krisi ekonomikoaren ondorio nagusietako bat da **langabezia handitu** dela, enpresak ixtearen ondorioz eta jarduera ekonomikoa gelditzearen ondorioz. Langabezia da Espainiako biztanleriaren lehen arazoa; hain zuzen ere, biztanleria aktiboaren %20tik gora daude lanik gabe. Egoera horren ondorioz, pertsona askok ezin diete aurre egin finantza erakundeekin dituzten zorrei; hori are larriagoa da, batez ere, etxebizitza erosteko izenpetu diren hipoteka kredituei dagokienez. Langabeziak eragina izan du kontsumoa jaistearekin, eta horrek, aldi berean, jarduera ekonomikoari eragin dio; horren ondorioz, enpresa askok itxi behar izan dute, eta, azkenean, gurpil zoro bat sortu du horrek.

Halaber, langabezia areagotzearen eta lanpostuak suntsitzearen ondorioz, esku-hartze publikoa behar duten pertsonen kopurua handitzen da, eta, ondorioz, gastu publikoa ere areagotu egiten da.

Defizit publikoak berekin dakar **politika publikoetarako aurrekontu partidak murrizteko arriskua, eta horiek dira, hain zuzen ere, gizarte ongizatearen estatuaren ereduaren bereizgarria:** osasun publikoa, hezkuntza, gizarte gaietako oinarrizko errentak, langabezia prestazioak, erretiro eta alargun pentsioak, eta hala ikerketarako eta teknologiarako nola inbertsio publikorako eta inbertsio pribatua sustatzeko baliabideak (I + G + d).

Horri **administrazio publikoen artean koordinaziorik ez izateko arriskua** gehitzen zaio, beti baitago arrisku hori. Horrek, emandako zerbitzuen kudeaketan txarki eragiteaz gain, gastu publikoa gehitzea dakar. Pertsonak eskubidea dute beren zergak modu egokian kudeatuak izan daitezen eta gastu publikoak eragina izan dezan jasotzen dituzten zerbitzuak hobetzen.

Adierazitakoarekin bat etorritik, defentsa erakundeok, pertsonen konstituzio eskubideen eta askatasunen bermatzaile garen aldetik, auziari heltzeko egoki irizten diogu **hurbilketa errealista** bat egiteari, gaur egungo testuinguruari bizkar eman gabe, **jakinik tentsioa dagoela gizarte eskaria handitu izanaren eta eskari horiei erantzuteko baliabide publikoek duten mugaren artean.** Modu horretan, gure iritzia





eman nahi dugu gainbegiratzeko ditugun botere publikoek arazoa konpontzeko egin beharreko jardueraren gainean.

III. ONDORIOAK

Egoera ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, herriaren defentsa erakundeek ondorio hauek ateratu ditzakegu:

1. Herriaren defentsa erakunde garen aldetik, gure izateko arrazoiak berekin dakar honako hau sinestea: gaur egun pairatzen diren egoera kritikoak saihestu nahi badira, **botere publikoek finantza merkatua arautu eta gainbegiratu behar dutela** nagusiki, eta araupetze horren bidez pertsonen eskubideak bermatu behar direla eta gizarte estatuaren printzipioak sustatu behar direla.
2. **Krisi ekonomikoak ezin ditu murriztu gizarte estatuko eskubideak.** Botere publikoek ezinbestean bermatu behar dituzte osasunaren sustapena, hezkuntza, langabearentzako babesa eta gizarte zerbitzuak, batez ere gizartearen ahaztuta edo baztertuta geratzeko arriskurik handiena duten pertsonentzat.

Aurrekontu partiden **zuzkidurek behar bestekoak** izan behar dute eskubideei loturiko gizarte programak aurrera eramateko, eta **beharrezkoa da lehentasunak ezartzea, funtsezko prestazioak eta osagarriak bereizita.**

3. **Hezkuntza aukera-berdintasunerako eta ekitaterako tresna bikaina izan dadin,** beharrezkoa da gure agintariak arreta berezia jartzea horretan, eta defentsa erakundeek gai hori modu aktiboan gainbegiratzeko, hezkuntza prestazioak ez galtzeko eta/edo balioa gutxitzeko.
4. **Administrazioek eta haien organoek modu koordinatuan jardun behar dute, eta konfiantza sortu behar dute.** Komenigarria litzateke sektore publikoaren ereduari buruzko eztabaida piztea, pertsonen ematen zaizkien zerbitzuak hobetuko dituen administrazio moderno, garden eta eraginkorra lortzeko.

Administrazioa gardena eta argia izateko, kontuan hartuta laguntzen deialdiak erakunde askok egin ohi dituztela, beharrezkoa da **informazio mekanismo zentralizatu** bat ezartzea pertsonentzat, familientzat eta enpresentzat dauden **laguntzen deialdi guztietarako**, eta laguntza horiek emateko prozedura erraza izatea, hala izapideei dagokienez nola laguntza lortzeari dagokionez.

5. Botere publikoek bermatu egin behar dute **langabeen gutxieneko beharrezkoak babestuta egongo direla, eta prestakuntza programak ezarri behar dituzte,** lan munduan azkar sartzeko modua izan dezaten.





Lan agintaritzek **zorrotz kontrolatu behar dituzte enplegua erregulatzeko espedienteen onespentak**, bidegabeki kaleratzeko tresna bihur ez daitezen.

6. Diru-sarrera publikoen beharra izateak ezin die kalterik eragin **zerga sistemaren justizia eta progresibitatearen printzipioei**, eta indartu egin behar da **zerga iruzurraren aurkako borroka**.
7. Indartu egin behar da **etxebizitza eskubidearen eraginkortasuna eta hedapena, premia bereziko taldeetan arreta berezia jarrita**, eta lurzoruak bere benetako gizarte funtzioa betetzen duela bermatu behar da, Konstituzioak babesten duen moduan.

Etxebizitza babestuak esleitzeko prozesuetan, publizitatea, lehia eta gardentasuna bermatu behar dira, eta, horretarako, baremo bat ezarri behar da, irizpide objektiboetan eta lehentasunezko taldeentzako kopuruetan oinarrituta. Halaber, indartu egin behar da **administrazioaren ikuskapena**, etxebizitza babestuen eskuratzailleek edo errentariek beren betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko eta arauak hausten dituzten jokabideak zehatzeko.

8. **Hiriguneak zentzuz hazteko** ahalegina egin behar da, zatika bereizteko prozesuak saihestuz, baldin eta bazterketa badakarte, eta jadanik eraikita dauden etxebizitzak erabiltzeko modua egin behar da. Alde horretatik, hirigintza eta etxebizitza planetan **lehenetsi egin beharko litzateke lehendik dauden etxebizitzak berrerabiltzea, eta horretarako erraztu egin beharko litzateke barne-eraberritzeak egitea, merkatuak beretu ez dituen etxebizitza libreak etxebizitza babestu bihurtzea eta, batez ere, etxebizitzak alokatzea**.
9. Etorkinek modua izan behar dute aurrerantzean ere **gizarte eskubideak eta zerbitzu publiko unibertsal guztiak eskuratzeko**, xenofobia edo arrazakeria agerraldi oro saihestuta.
10. **Gastu publikoa murrizteak ezin du berekin ekarri krisi garaian laguntzak modu nabarmenean urritzea** premiarik handieneko taldeen alde gizarte intereseko jarduerak egiten dituzten **irabazteko asmorik gabeko elkarte eta erakunde pribatuentzat**.
11. Kontuan hartuta tokiko administrazioa dela egunero zerbitzu publikoak eskatzen dituzten pertsonengandik hurbilen dagoena, presakoa da **udal finantzaketarako beste sistema bat** ezartzea, tokiko erakundeei beren aurrekontuen kontura jardutea bermatuko diena, finantzaketa finalistari itzuri eginez.

AGIRIA IXTEKO AZKEN GOGOETA: Hemen bildu garen defendatzaileok konpromisoa hartzen dugu 2010a Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren aurkako





Borrokarako Europako Urte izendatzen duen Adierazpenaren printzipioak eta helburuak geure egiteko eta horien hedapena sustatzeko, gizarte eskubideak aldezteko eta bermatzeko bide gisa.

